

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUA, zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzen duena zehapenak barkatzeari dagokionez.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 194. artikuluko 3. apartatuaren hasierako idazkeran ezartzen zuenez, Fiskalitatearako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak bakarrik barka ditzake grazia bidez zerga zehapen irmoak.

Apartatu hori aldatu egin zuen abenduaren 26ko 5/2011 Foru Arauaren -Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzekoa- 7.5 artikulua. Horren ondorioz, Diputatuen Kontseiluari eman zitzaion kudeaketa edo ikuskapen prozedura beretik eratorritako zehapenak barkatzeko eskumena, haien zenbateko metatua 6.000 eurokoa edo handiagoa zenean, baina Batzar Nagusiek baimena eman behar zuten alde zuzenetik; gainerako kasuetarako, eskumen hori Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren esku geratzen zen.

Geroago, ekainaren 12ko 3/2012 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aldatzekoak, berriro aldatu zuen aipatutako 194. artikuluen 3. apartatua. Aldaketa horren ondorioz, 6.000 euroko edo hortik gorako zehapenak barkatzeko ez zen beharrezkoa Batzar Nagusiek baimena ematea, baina bai haiek jakinaren gainean egotea.

Zerga urraketen eta zehapenen Erregelamenduko VI. kapituluaren zerga zehapenak barkatzeko prozedura arautzen da. Orain arauketa hori aldatu beharra dago, zehapenak barkatzeko eskaerak ebazteko eskumen berrietara egokitu dadin.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaiatu eta onartu ondoren, hau.

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira zerga urraketen eta zehapenen Erregelamenduan, irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretu bidez onartutakoan:

Bat. 31. artikulua honela geratzen da idatzita:

«31. artikulua. Zerga zehapenak barkatzeko eskaerak ebazti ditzaketan organoak.

1. Zerga zehapen irmoak interesdunak aurrez eskatuta barkatu daitezke grazia bidez, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 194. artikuluen 3. apartatua xedatutakoari jarraiki.

2. Honako hauek izango dute zerga zehapen irmoak barkatzeko eskaerak ebazteko eskumena:

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 16/2013, de 30 de abril, por el que se modifica el Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias en materia de condonación de sanciones.

El apartado 3 del artículo 194 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establecía en su redacción original que las sanciones tributarias firmes sólo pueden ser condonadas de forma graciable por el diputado o diputada foral del Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas.

Dicho apartado fue modificado por el apartado cinco del artículo 7 de la Norma Foral 5/2011, de 26 de diciembre, de modificación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas tendente a la recuperación de la equidad y de aprobación de otras medidas tributarias, en el sentido de atribuir la competencia para la condonación de sanciones derivadas de un mismo procedimiento de gestión o inspección por una cuantía acumulada igual o superior a 6.000 euros al Consejo de Diputados, con autorización de las Juntas Generales, manteniendo para el resto de los casos la competencia en manos del diputado o de la diputada foral de Hacienda y Finanzas.

Posteriormente, el artículo único de la Norma Foral 3/2012, de 12 de junio, de modificación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, volvió a modificar el citado apartado 3 del artículo 194, sustituyendo la autorización de las Juntas Generales en la condonación de las sanciones de importe igual o superior a 6.000 euros, por el conocimiento previo de las mismas.

El Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias contiene en su capítulo VI la regulación del procedimiento para la condonación de las sanciones tributarias, que debe ser modificada para adecuarla a la nueva asignación competencial en la resolución de las condonaciones de sanciones.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en su sesión del día de hoy,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias, aprobado por Decreto Foral 42/2006, de 26 de setiembre:

Uno. El artículo 31 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 31. Órganos competentes para resolver las solicitudes de condonación de sanciones tributarias.

1. Las sanciones tributarias firmes podrán condonarse de forma graciable previa solicitud de la persona o entidad interesada y de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 194 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Serán competentes para resolver las solicitudes de condonación de sanciones tributarias firmes:

a) Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, baldin eta barkamen eskaera tributuen kudeaketa edo ikuskapen prozedura beretik eratorritako zehapenekin lotuta bada go eta haien zenbateko metatua 6.000 eurokoa edo handiago bada. Proposamenak zati batean zein osorik onesten duenean eskaera, beharrezkoa izango da Batzar Nagusiak jakinaren gainean jartzea alde aurretik.

b) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, gainerako kasuetan».

Bi. 32. artikulua honela geratzen da idatzita:

«32. artikulua. Eskatzeko epea.

Barkamen eskaera hilabeteko epean aurkeztu behar da, zerga zehapena ezarri duen egintza irmo bihurtzen denetik aurrera; eta idatzian eskaera ekarri duten zergatiak edo gertarak adierazi behar dira.

Alabaina, eskaera aurkezten bada zehapena ezarri duen egintza administratiboa irmo bihurtu aurretik, tramitazioa etenda geratuko da egintza horrek irmotasuna hartu arte, eta eskaera dagokion epean aurkeztu dela joko da.

Zehapena ezarri duen egintza administratiboaren aurka errekurso edo erreklamaziorik aurkezten bada tramitazioa etenda dagoen bitartean, aurkeztutako barkamen eskaera onartezin deklaratu da, nahiz eta hori ez den oztopo izango, behin errekurso edo erreklamazioa ebatzita, barkamen eskaera berriro aurkezteko».

Hiru. 33. artikulua honela geratzen da idatzita:

«33. artikulua. Eskaeraren beharkizunak.

1. Eskaera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari zuzendu behar zaio, eta bertan gutxienez honako datuok adierazi:

a) Pertsona edo entitate eskatzailearen edo, kasua bada, ordezkariaren izen-deiturak edo sozietate izena eta IFZ; eta jakinarazpenetarako lekua.

b) Barkamen eskaera zein zerga zehapeni dagokion; eskaera oinarritzeko gertaerak, zergatiak eta erregua ere adierazita.

c) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura edo, kasua bada, ordezkariarena.

2. Ordezkaritza bidez jarduten den kasuetan, ordezkari frogatu behar da irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, foru administrazioaren aurrean egin beharrek jarduketetan nortasuna eta ordezkari egiaztatzea arautzen duenak, xedatutako kontuan hartuta».

Lau. 34. artikulua honela geratzen da idatzita:

«34. artikulua. Tramitazioa.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari dagokio zehapenak barkatzeko espedienteak tramitazioa eta haien ebazpenaren ondorioz zilegi diren likidazio guztiak izapidetzea.

2. Txostenak eskatzea, frogak egitea eta pertsona edo entitate interesdunari entzunaldia ematea beharrezko irizten denean, tramite horiek Idazkaritza Teknikoak egingo ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak III. tituluaren II. kapituluaren jasotako arauari jarraituz.

a) El Consejo de Diputados, a propuesta de la diputada o del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, cuando la solicitud se refiera a sanciones derivadas de un mismo procedimiento tributario de gestión o inspección por una cuantía acumulada igual o superior a 6.000 euros. Cuando la propuesta sea parcial o totalmente estimatoria de la solicitud será preciso el conocimiento previo de las Juntas Generales.

b) La diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas en el resto de los casos».

Dos. El artículo 32 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 32. Plazo de solicitud.

La solicitud de condonación deberá presentarse en el plazo de un mes desde que adquiera firmeza el acto que hubiera impuesto la sanción tributaria, mediante escrito en el que se harán constar los motivos o hechos en los que se basa la solicitud.

No obstante, si se presenta la solicitud con anterioridad a que adquiera firmeza el acto administrativo de imposición de la sanción, la tramitación de la misma quedará suspendida hasta que el acto adquiera firmeza, entendiéndose presentada dentro del plazo correspondiente.

Si estando suspendida la tramitación, se interpusiera recurso o reclamación contra el acto administrativo de imposición de la sanción, se declarará la inadmisibilidad de la solicitud de condonación presentada, sin perjuicio de la posibilidad de volver a solicitar la condonación una vez resuelto el recurso o la reclamación».

Tres. El artículo 33 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 33. Requisitos de la solicitud.

1. La solicitud deberá dirigirse a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, conteniendo como mínimo los siguientes datos:

a) Nombre y apellidos o razón social y NIF de la persona o entidad solicitante y, en su caso, de la persona que la represente, así como el lugar que se señala a efectos de notificaciones.

b) Sanción tributaria cuya condonación se solicita, además de los hechos, razones y súplica en que se concreta la petición.

c) Lugar, fecha y firma de la persona solicitante o, en su caso, de su representante.

2. En los casos en los que se actúe mediante representante, la representación se acreditará de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral».

Cuatro. El artículo 34 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 34. Tramitación.

1. Corresponde a la Secretaría Técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas la tramitación de los expedientes de condonación de sanciones, así como de cuantas liquidaciones proceda practicar como consecuencia de la resolución.

2. Los trámites de solicitud de informes, práctica de pruebas y audiencia a la persona o entidad interesada se realizarán, cuando se estime necesario, por parte de la Secretaría Técnica con arreglo a las normas comunes previstas en el capítulo II del título III de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. Espedientea ebazteko eskumena Diputatuen Kontseiluak duenean eta departamentuaren proposamena eskaera osorik edo zati batean onestearen aldekoa denean, Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritzak bidezko komunikazioa helaraziko du Batzar Nagusietara, aurrez jakinaren gainean jartzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 194. artikulua 3. apartatua xedatzen duen moduan. Izaera pertsonaleko datuak behar bezala babeste aldera, komunikazio horretan ez da agertuko espedienteetako pertsona titularren identifikazio daturik».

Bost. 35. artikulua honela geratzen da idatzita:

«35. artikulua. Zehapenaren exekuzioa etetea.

1. Zerga zehapenak barkatzeko eskaera aurkezteak ez du ekarriko, berez eta besterik gabe, zehapenaren exekuzioa etetea.

Guztiarekin ere, zerga zehapenaren exekuzioa etenda geratuko da automatikoki, pertsona edo entitate interesdunak hala eskatuta, baldin eta zehapenaren zenbatekoa, etendurak eragindako berandutza interesak eta sor litezkeen errekariguak ondorengo apartatuetan xedatutako eran bermatzen badira.

2. Eskatzaileak exekuzioa eteteko eratu behar duen bermea Foru Diruzaintzaren Kutxan sartu behar da. Berme hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222.2 artikuluan jasotzen dituenetako bat izan daiteke.

3. Eskaeraren egunetik aurrera joko da onartutzat eten-dura, aurreko 2. apartatua xedatutakoaren arabera behar bes-teko bermea aurkezten denean.

Aurkeztutako bermea ez bada behar bestekotzat hartzen zuzendu beharreko akatsen bat izateagatik, Idazkaritza Teknikoak erabaki dezake zehapenaren exekuzioa behin-behinean etetea detektatutako hutsune edo akatsaren zuzenketa tramitatu bitartean. Akatsa emandako epean zuzenduta, etena behin betiko bihurtuko da. Beste edozein kasutan, behin-behineko etena bertan behera utziko da.

4. Barkamen eskaera behin ebatzita zerga zehapenaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, berandutza interesak likidatuko dira etenduraren epe osoarengatik, betiere kendu gabe Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 26. artikulua 4. apartatua aurreikusitakoa.

5. Orobat, zehapenak geroratu edo zatikatzeko eskatu daiteke Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 64. artikuluan ezarritako baldintzetan».

Sei. 36. artikulua honela geratzen da idatzita:

«36. artikulua. Ebaztea.

1. Zerga zehapenaren barkamen eskaerak tramitatzeko prozedurak sei hilabeteko epean ebatziko dira gehienez.

Gehieneko epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, ukitutako pertsonak eta entitateek ezetsitzat jo dezakete beren eskaera isiltasun administratiboa dela-eta.

Eskaera aurkeztu bada zehapena ezarri duen egintza administratiboa irmo bihurtu aurretik, aipatutako epea egintza irmo bihurtu ondorengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

3. Cuando la competencia para resolver el expediente corresponda al Consejo de Diputados y la propuesta del departamento sea favorable a la estimación parcial o total de la solicitud, la Secretaría del Consejo de Diputados tramitará la necesaria comunicación a las Juntas Generales al objeto de que éstas tengan el conocimiento previo establecido en el apartado 3 del artículo 194 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En aras a la debida protección de datos de carácter personal, dicha comunicación no contendrá información identificativa de las personas titulares de los expedientes».

Cinco. El artículo 35 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 35. Suspensión de la ejecución de la sanción.

1. La presentación de la solicitud de condonación de sanciones tributarias no suspenderá por sí misma la ejecución de las sanciones.

No obstante, la ejecución de las sanciones tributarias quedará suspendida automáticamente a instancia de la persona o entidad interesada si se garantiza el importe de las sanciones, los intereses de demora que genere la suspensión, así como los recargos que, en su caso, se devenguen, conforme a lo dispuesto en los apartados siguientes.

2. La garantía a constituir por la persona o entidad solicitante para obtener la suspensión se depositará en la Caja de la Tesorería Foral, y podrá consistir en alguna de las garantías previstas en el artículo 222.2 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. La suspensión se entenderá acordada desde la fecha de la solicitud cuando se presente garantía suficiente de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 anterior.

Cuando la garantía presentada no sea considerada suficiente por adolecer de algún defecto subsanable, la Secretaría Técnica podrá acordar la suspensión provisional de la ejecución de la sanción en tanto se tramita la subsanación del defecto o error detectado. Una vez subsanado aquél en el plazo otorgado, la suspensión se elevará a definitiva. En otro caso, se levantará la suspensión provisional.

4. Cuando deba ingresarse total o parcialmente el importe de las sanciones tributarias como consecuencia de la resolución de la solicitud de condonación, se liquidarán intereses de demora por todo el período de suspensión, sin perjuicio de lo previsto en el apartado 4 del artículo 26 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

5. Asimismo, se podrá solicitar el aplazamiento o fraccionamiento de las sanciones en las condiciones establecidas en el artículo 64 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa».

Seis. El artículo 36 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 36. Resolución.

1. El plazo máximo para la resolución de los procedimientos de condonación de sanciones tributarias será de seis meses.

Vencido el plazo máximo sin que se haya notificado resolución expresa, las personas y entidades afectadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

En los supuestos en los que la solicitud se hubiera presentado con anterioridad a que adquiriera firmeza el acto administrativo de imposición de la sanción, el plazo citado empezará a contarse a partir del día siguiente al de la adquisición de firmeza.

2. Ebazpena zehapena barkatzearen aurkakoa bada, berandutza interesak likidatuko dira barkatu gabeko zehapena ordaintzeko epea amaitzen denetik barkamen eskaera ebazten den egunera arte. Hala dagokionean, bidezko errekarua ere likidatuko da.

Ebazpena aldekoa bada dela zehapen osoaren gainean dela zati baten gainean, eta haren kontura lehendik zenbatekoren bat ordaindu bada, zehapenarengatik ordaindu eta barkatutako zenbatekoaren zatia itzuliko du Zerga Administrazioak. Era berean, bidezkoa den kasuetan, ordaindutako errekaruari dagokion zatia ere itzuliko du Zerga Administrazioak, hasierako zehapena murriztea erabaki den proportzio berean. Barkatutako zehapen zatiarengatik ez da berandutza interesik sortuko, ezta dagokion errekaruarengatik ere, halakorik izan bada.

3. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka hautazko berraztertze errekursoa jar daiteke egintza eman duen organoan, administrazio prozedura erkideari buruzko araudian xedatutakoaren arabera».

Xedapen iragankorra.

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean zerga zehapenak barkatzeko prozedurak tramitatzen ari badira, bertan xedatutakoaren arabera arautuko dira geroko jarduketeki dagokienez.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2013ko apirilaren 30ean.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(580)

(4641)

2. En caso de resultar resolución denegatoria, se liquidarán los intereses de demora que se pudieran haber generado desde la finalización del plazo de pago de la sanción no condonada hasta la fecha de la resolución de la solicitud de condonación, así como, en su caso, el recargo correspondiente.

En caso de resultar resolución favorable, bien sobre la totalidad de la sanción o bien sobre parte de ella, y se haya producido algún ingreso a cuenta de la misma, la Administración tributaria procederá a la devolución de la parte del importe ingresado y condonado de la sanción, así como, cuando proceda, a la devolución de la parte correspondiente del recargo ingresado, en la misma proporción en la que se acuerde la reducción de la sanción inicial de la que deriva. No se devengarán intereses de demora por la parte de la sanción que haya resultado condonada ni, en su caso, por el recargo correspondiente.

3. Contra la resolución que ponga fin al procedimiento podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el órgano que haya dictado el acto, de acuerdo con lo dispuesto en la normativa reguladora del procedimiento administrativo común».

Disposición transitoria.

Los procedimientos de condonación de sanciones tributarias en tramitación a la entrada en vigor del presente decreto foral se regirán, en cuanto a las actuaciones posteriores, por lo dispuesto en el mismo.

Disposición final.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 30 de abril de 2013.

EL DIPUTADO GENERAL,
Martin Garitano Larrañaga.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Helena Franco Ibarzabal.

(580)

(4641)